

OLDOZKUNAK

Itz batez ezer onik atera ezik, millagaz be nekez e. er lortuko dozu.
Begira egizu joana, ta etorkizuna igarriko.
Nire onez ba'diardu, lapurretan dagist; nire txarrez ba'diardu,
irakasle dot.
Gizonak irabazia dakus, baña arriskuarik ez.

BASERRI-GAI AK

Urteak daroazan amabi iletatik atsegintsuenak Orrila ta Bagila doguz. Orrilari gure artian Maietza esaten dautsagu. Ila onegaz udabarria osoan sartzen yaku. Ona eldu ezker, negualdian baño bestelako alai-suna izadi guztian susmetan dogu. Mendi, ibar, zelai ta solo-baratzak, soñeko barri-txukunez apainduta datusguz. Txorieki ñozkorik barritzuen. Kukue arto-aro bere biboliñari ekin eta ekin baserri guztiak lanerako poztuten.

Mayetzeko eguraldiak, lur-igalietan, onerako edo txarrerako, garrantzi aundia daroa. Ori dala-ta, edo zenbat esakun daukaguz: Ona emen orrelako batzuk: «Mayetzeko euria ta beroa, pozik dabil gure soloa. Mayetza ilten ba'dau, otzak, mats gitxi ta artotza makalak.—Orrilako euria, urte guztirako ardua ta ogia. Mayetza epela, ugari esnea ta okela.—Mayetza pardo, ogi ta ardo; mayetz otz, ez gari ta ez agotz.—Maietz otz, ez autz ez biotz.—Mayetza euritsu, lugiña arrotxu.—Mayetzeko zazpi egun, zazpi ilabeteren lagun. Mayetza urtearen giltza.—Aundi naz, txiki naz, maietzian buru naz. Mayetz-paskuak euritsu, urtea ogitsu. Mayetzeko artoaren ardurea ta bost semealaba daukazana, eztago musika-bila.

Solo-lanak

Nekazari ta baserritarrak, Mayetzeko etxeratu ezker, lur-lanei erpe ta agin ekin bearrean aurkitzen dira. Udagoienan etxeratuko dana, oraintxe erein bear, izerdi askoren bidez.

Ila onetan erein bear diranak asko dira. Artoak, udarbi edo erromalatxak, baiñak, indabak, kalabazak, apiyua, berengenak, udako rabano zuria, salsipis uda-goyeneko txikore kizkurra, tomate ta piperrak, urazi edo letxugak, kalabaza txikerrak, gisante txikerrak, ziazerba, goxetiko melidiak, pepino ta perejile, karduzuria, kipulatxoa, alpapa, Olandako esparraua.

Baña bigunek eta letxuga samurrak udaldi guztian euki al izateko, arlotxo bat jarri bear dozue amabost egunetik amabostera. Bañak erein leikez abuzturarte.

Loretegiak jarri leikez jeranie ta begoniak, krisan-temo ta anemonak. Baña erein leikez abuzturarte. Matsa supratu ta sulpatatzen as leike il onen le-negotik. Matsa artzeko sulpato au bear-bearrekoa da. Igali-zugatza alperreko kimuak kendu. Grau edo ale lapregi dakerren adarre, ale batzuk meaztutea ondo da, ume geiege dituan ameak danentzako esne naikua ez daukelako.

Daliak zelan erein eta zaintzen diran itanduten dabe batzak. Azitik be ugaritu leikez, baña onduen patata edo sustraitik jartzen dira. Neguan atera leikez eta bertan itxi be bai. Udabarrian barrero zuloetan sartu, satsa ugari nastuta. Danak batera sartu barik zulo askotan obeto datoz. Bare ta marraskiluek uxatuteko, inguruan kare bizia zabaldu. Larrosa ta onango landarei be satsa ta karea ondo yatorke.

Igali osasunkorrak

Igali edo arnari batzuk osasungarri dirala, ezin ukatu leike. Izadian eskutuki sakonak dukaguz. Eurotatik asko ikasi geinke ta jakin ezker, onura asko atera.

Lo egiteko, ona dira uraza edo letxuga, berakatza ta kipula. Pizontzi edo puxigi geixoarentzako meloia. Garnu edo txixe obeto egiteko, perejile, porrue eta batez be azeribustena deitzen yakon bedarra.

Erreumea ta aunditu zarnetuak osatuteko, zaurira lotu piko-aozabala. Sabeletik bigun ibilteko, baraurik artu igali edo fruta batzuk adibide: sagarrak, naranjak, urre-madari edo limoia pikoak, masustak eta kerexak. Gaztaña egosi nai erreak be onak doguz.

Eztia iztarri ta urdaleko gatxak biguntzeko osaki ona da.